

URRIA

ZERURA BEGIRA

Estreinatu berri den udazkeneko lehen hilabete oso honetan, eguna gero eta motzagoa izango da. Eguzkia: urriaren leian, irten 8,11etan eta sartu 19,57etan; azaroaren leian irten 8,44etan eta sartu 19,12etan. Beraz, urrian zehar eguna ordubete eta hamazortzi minutu mozten da.

Urriak	8,	2,52etan, ilgora
"	14,	22,32etan, ilargi betea (ilbehera hasi)
"	21,	15,19etan, ilbehera
"	23,	12,35etan, eguzkia Scorpio arora sartzen da
"	29,	17,27etan, ilargi berria (ilgora hasi)

* ordu ofizialak.



Sagarrak jasotzeko garaia da

	EREIN		LANDATU	UZTA	
BARATZA	Ilgora	Ilbehera	* Orburua (aldaskak) * Marrubia * Azalorea (udaberrirako) * Zerba (berandukoa) * Eskarolak (denak) * Letxua (negukoa) * Tipula zuria (apirilekoa) * Baratzuria	* Apioa	* Alberjina
	* Ilarra	* Ur-berroa		* Marrubia	* Ur-berroa
BELARRAK	* Garbantzua	* Errefaua	* Azalorea (udaberrirako)	* Kuia	* Meloia
	* Dilista		* Zerba (berandukoa)	* Gardua	* Arbitxoak
			* Eskarolak (denak)	* Tipulak	* Baberrunak (denak)
			* Letxua (negukoa)	* Azak (denak)	* Leka
			* Tipula zuria (apirilekoa)	* Azalorea	* Erremolatxa gorria
			* Baratzuria	* Eskarola	* Txikoria
				* Letxua	* Espinaka
				* Tomatea	* Endibia
				* Piperrak	* Baba beltza
				* Azenarioak	
	* Azitraia		* Azafraia	* Perrexila	* Azafraia
	* Martorria		* Belar bedeinkatua	* Apoperrexila	* Belar bedeinkatua

Erein: hazia; **Landatu:** landarea, aldaska, erreboila, begia, etab.

BITXIKERIA

Barazki bereziak

Kalabazina:

Curcubita pepo-oblonga. Uzta: fruitua.

Kuiaren antzeko zikloa osatzen du (ikus ELHUYAR. Zientzia eta Teknika 23).

Erein: Apirila-maiatza. Zuzenean zuloka, bakoitzean 3-4 hazi eta simaur gainean; 3 zutara lurrazpian eta zuloak 1x2 m-ko tartarekin.

Lanak: Landaretxoek 3-4 hosto dituztenean zulo bakoitzean onena utzi eta besteak kendu. Ureztaketa ugari. Jorraldi ugariak mesede galanta egiten diote; bai hezetasuna mantentzeko eta bai zainak bilakatzen laguntzeko.

FRUTARBOLAK

Uzta-garairik garrantzitsuena dugu urria:

Udareak, sagarrak, iran-sagarrak, pikoak, in-txaurrak hurrak, gaztainak ezkurak, pinaziak, mizpirak, basaranak, gurbitxa eta basa fruituak (ipuruarena, gorostiarena, elorrioarena, etab.ena)

Gurbitxaren fruituak heltzen zaizkigunarekin batera loreak zabalduko ditu; hurrengo urteko fruituak emango dituzten loreak..

ESAERAK

(Julian Alustizaren "Euskal Baserriaren inguruan" liburutik jasoak)

- * Udazkena, urtesasoirik ederrena.
- * Noiz zen?
Noiz zen?
Gaztainak jaulkitzen,
usoak pasatzen eta pasatzen,
txantxangorri bat kantuan ari zen ...
- * San Miek urriko,
lihoa orri biko. (Azpeitia, Aratzerreka)
- * Ama Birjina urriko,
lihoa hiru orriko (Altsasu, Uharte-Arakil)
- * Urriar artoak burutzen,
eta inarak buztantzen (Luzaide)
- * Ganbara bete arto,
ez gagoz hain txarto. (Arantzazu)
- * Urriko Ilbeheran
elurre Aizkorrian (Mutiloa)
- * San Simon eta San Juda
udea joan eta negua heldu da.
Eta artzai gaixoa galdu da (Urriak 28)
- * Ama Birjiña urriko
behin ere ez balitz etorriko (Saldias)

Uzta: Fruituak erabat garatu eta heldu baino lehen bildu. Xamurragoak dira eta azkar biltzeak kimaketa indartsuaren ondorioak ditu, batipat ekoizpena hobetuz. Hau normalean m²-ko 2 edo 3 kilokoa da.

Meloia:

Cucumis melo. Uzta: fruitua.

Kukurbitazeo familikide guztien antzera, lurrean materia organiko ugari behar du eta inoiz ez deskonposatu gabea. Simaur zaharra oso egokia da. Beroa ere behar beharrezkoa du.

Erein: Beroa segurtatzeko apirila-maiatzean lorontzitan ereingo dugu babesean, bakoitzean 3-4 hazi 2-3 cm lurrazpian.

Landatu: 40x40x40 cm-ko zuloak prestatu, azpia simaurrez bete eta hau lur pixka batez estali ondoren, gainean landatu. Zulotik zulorako tartea 1 m-koa izango da, alde guztietara. Landatu bezain laster sakon ureztatu.

Lanak: Kimaketa da meloiaren lanik nagusiena. Landareko 5-6 fruitu utzi behar direnez, landarearen garapena kontrolatu beharko dugu. Kimaketak 3 atal nagusi ditu:
– Landareak 3-4 hosto bikote dituenean 2. bikotearen gainetik kimatu.

Laster, sagardoa izango dugu.



- Ateratako bi pujak 6. hosto-bikotearen gainetik.
- Fruituaren ondoren 2. hosto-bikotearen gainetik.

Uzta: Fruituak helduta daudenean, landareari lotzen dion txortena lehortzen hasten da eta askatzean ez du fruituaren zatirik berari itsatsita eramaten.

Angurria:

Citrullus lanatus

Angurriak (melo, kui, kalabazin eta kukurbitazeo guztien antzera) eguraldi beroa, lur simaurtsua eta ureztaketa ugari behar ditu.

Erein: Apirila-maiatzean. Zuzenean zuloetan; bakoitzean 2-3 hazi eta zulotik zulora 3 metroko tartea alde guztietara.

Lanak: Zulo bakoitzean landaririk onena aukeratu eta besteak kendu. Jorraldi-pare bat eta goizaldera ureztaketak, inoiz ere fruiturik busti gabe. Kimaketa beharrezkoa da. Landarearen bi edo hiru adarretan 2-3 fruitu besterik ez dugu utzi behar. Hortik aurrera moztu.

Uzta: Abuztu ingurutik aurrera, fruituak erabat helduta daudenean bildu behar direlarik. Ekoizpen, m²-ko 6 kg.

Luzokerra eta Ozpín-luzokerra

Cucumis sativus. Uzta: fruitua

Kukurbitazeo familikide guztientzako esanak berdin balio du igokari honentzat (ikus aurrekoak).

Erein: Babesean (negutegian) lorontzitan martxo-apirilean, ernetzen laguntzeko egun batez uretan beratzen eduki ondoren. Maiatza aldera landatu.

Landatu: Zuloek 0,5x1 m-ko tartearrekin, simaur zaharrez bete zuloa eta hau estaliko duen lurrean landatu. Ozpín-luzokerrak baldin badira, tarte txikiagoa behar dute fruituak txikiagoak eta xamurragoak izan daitezen..

Lanak: Ez dira kimatu behar; fruituak txikiak bait dira. Lurra heze mantentzea garrantzitsua da, baina fruituak hezetasuna ukituz egon ez daitezen, hondakin organikoz osaturiko geruza bat jarri behar dugu (lastoa, hostoak...) edo landarea igotzeko azpiegitura bat prestatu (makilak, sarea, ...).

Landare indartsua denez, izurrite eta gaitz gutxi jasaten ditu, hauen artean aipagarriena oidioa, zeina oinarritzat sinka edo sufrea duten frujizidez tratatzen bait da.

Uzta: Uzta aldera hasten da. Gordinik jateko luzokerra nahi badugu zertxobait hazten utzi, baina inola ere horitzen ez utzi. Lehentxeago bildu. Kontserbatzeko direnak, ozpín-luzokerrak, 10 cm dituztelarik bildu. 